

Ilargiaren sekretua

Eguzkiaren inguruan, bide zabal-zabala bada. Lurra eta Ilargia
Eguzkiaren inguruko bide horretan dabilta.

Duela aspaldi, **eskuz-esku** ibiltzen omen ziren, lagun handi gisan.

Egun guzietan, ibilalditxo bat egiten zuten.

Halako batean, Ilargiak erran zion :

– Uros naiz zurekin ; beti elkarrekin gabiltza, sekula **samurtu** gabe.

Lurrak erantzun zion :

– Bai, egia lagun onak garela ; gure artean denak garbi dira ; ez
diogu elkarri deus gordetzen.

Baina hori ez zen egia : Ilargiak bazuen, bai, sekretu bat.

Alabaina, bi alderdi dauzka Ilargiak baina hain zuzen bat beti gor-
derik.

Lurrak galdegin ziolarik “Zergatik ez duzu beste aurpegia era-
kusten?”, Ilargia tristatu zen.

Lurra deliberatu zen orduan :

– Hola edo hala, sekretu hori argitu nahi dut ! Eguzkiari laguntza
galdeginen diot.

Eta Lurra Eguzkiaren ikustera joan zen.

– Aizu! Nola ikus dezaket Ilargiak kukutzen duen aurpegia ?

eskuz-esku : eskua emanik.

samurtu : haserretu.

5

10

15